



# MUNGIAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAKO IV. PLANA



MUNGIA  
UDALA



EMAKUNDE



**Egilea:** Mungiako Udala.  
**Diseinua eta ilustrazioak:** Amaia Ballesteros.  
**Inprimatzea:** Gráficas Uncilla SA.

2020ko ekainaren 26an Udaletxean egindako ohiko bilkuran aho batez onartuta.  
**Lege gordailua:** BI-01126-2021

Eskubide guztiak jabedunak dira. Agiri honen ataletatik bat ere exin kopia daiteke edo inola edo ezereen bidez ere igorri, baldin eta Mungiako Udalak baimenik ematen ez badu idatziz.

# AURKIBIDEA



HITZAURREA .....5



SARRERA.....6



LAN-PROZESUA ETA ERABILITAKO METODOLOGIA .....6



**MUNGIAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA .....9**

**1. Ardatza. Gobernu ona.....9**

**2. Ardatza. Emakumeen alduntzea ..... 13**

**3. Ardatza. Gizarte-antolaketa berdinzalea..... 15**

**4. Ardatza. Indarkeria matxistarik gabeko herria ..... 17**



DIAGNOSTIKOAREN ONDORIO OROKORRAK.....19



**M**ungiako Udalak urte asko daramatza helburu argi bat buruan duela lanean, hain zuzen ere, giza eskubideen alde mungiarrekin daukan konpromiso sendoa oinarrituta. Eta konpromiso horri eutsi eta ekin egiten diogu gaur egun, hots, gure udalerriko bizilagunen arteko benetako berdintasuna lortzeko borrokatzea eta lan egitea.

Printzipio-oinarri horretatik abiatuta, era progresiboan ekin diogu lanari, pausu garrantzitsuak aurrera eginda, harik eta Udalbatzak Osoko Bilkuran *Mungiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana* onartu arte.

Dokumentu horrek gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatu eta bermatuko duten hainbat neurri ezartzea dakar, bai eta hainbeste urtetan hausten zailak izan diren desberdintasun-katebegiak desagerraraztea ere.

Berdintasunerako denon ahalegin bateratua behar da, eta, horregatik, Berdintasunerako Zerbitzua-ren hogei urteko ibilbidean, beste erakunde, organismo eta herriko elkarte batzuekin ere egin da lan denon ahaleginak batzeko. Horixe izan baita Mungia berdintasunaren alde etengabe aurrera egiten doan udalerraren eredu bihurtzeko modua.

Edonola ere, egia da aurretik bide luzea daukagula egiteko: soldata-arrakala, pentsioetako diskriminazioa, emakumeen langabezia tasa altuagoa, erantzukizun politiko, sozial, kultural eta ekonomikoko karguetan emakumeek duten presentzia urria, lana, bizitza pertsonala eta familia bateratzeko arazoak, sexu-jazarpena eta, denetan arazorik larriena, genero-indarkeria. Horiek guztiak erakusten digute emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna ekintza positiboak behar dituen zeregina dala.

Horregatik dira ezinbestekoak berdintasun-politika publikoak Administrazio Publikoaren eremu guztietatik bideratuak, bai eta toki-administrazioetik ere, sexuagatiko diskriminazio-adierazpen guztiei aurre egiteko eta andreen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko.

Konpromiso horren emaitza da honekin batera aurkezten dugun dokumentua.

Plan hau modu parte-hartzailean egin da, Mungiako hainbat bizilagun, elkarte eta gizarte-eragile inplikaturik, eta berdintasunari lekua egiteko prest dauden emakumeen eta gizonen nahiak jasotzen ditu barruan.

Planak zeharkako izaera dauka, eta Udaleko arlo guztiak inplikatzeko ditu. Horretara, agerian geratzen da berdintasuna ez dela sail baten eskumen-eremua, udal-politika osoa zeharkatzen duen printzipio eta uste sendoa baizik.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Plan hau egiteko parte hartzeko konpromisoari oratu diotenei, eta bat egiten dut lan honen balioak eta printzipioak denok gure helburuak betetzeko bermerik onentzat hartzeko gogoarekin.

Helburua lortzeko ilusioa jendearen gogoan piztuz gero, mereziko du egindako ahaleginak. Mungiak lortuko du.

**Ager Izagirre Loroño**  
Mungiako Udaleko Alkatea

# SARRERA

## **M**ungiako Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana egin du, Elhuyar Aholkularitzaren laguntza teknikoarekin eta Emakundek lagundutako finantzatzearekin.

Proiektu honen bidez, Mungiako Udalak azken urteetan egindako lanari jarraipena eman nahi dio, berdintasun handiagoko gizartea eraikitzeko konpromisoaren seinale.

IV. Plan hau Emakundeko VII. Berdintasun Planaren ardatzak kontuan hartuta diseinatu dugu. Bertan, jarduera-ardatzak, ardatz bakoitzaren helburuak eta helburu horiek lortzeko ekintzak definitu ditugu. Ekintza bakoitzaren epea eta hori garatzeko ardura duten arloak ere zehaztu dira. Azkenik, kudeaketa egiturak, aurrekontua eta plana ebaluatzeko adierazleak definitu ditugu. Orain aurkezten dugun dokumentu honetan ez dira atal guztiak agertzen, ale teknikoegia eta zabalegia izango litzatekeelako, baina kontuan hartu dira azken testua egiteko.

Jakina denez, Mungiako Udalak bi hamarkada daramatza berdintasunaren arloan lanean, eta berdintasunerako hiru plan egin ditu. 2001. urtean Mungiako Emakumeentzako Ekintza Positiboko Plana egin zuen 2001-2004 aldirako. 2007. urtean II. Plana egin zuen, 2007-2011 aldirako, eta 2013. urtean Mungiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana egin zuen, 2013-2016 aldirako. III. Plana 2018ra arte luzatu zen, eta urte horretan hasi zen orain argitaratzen den azken testu hau egiten. Aurrekari horiek guztiak kontuan hartuta, Udala IV. Berdintasun Plana diseinatzen hasi zen, eta hau 2020-2024 aldirako izango da.

Gaur eguneko gizarte-ereduak LGTBI+ (lesbianak, gayak, transexualak, bisexualak, intersexualak...) diskriminatzen ditu, nagusi diren portaera-ereduekin eta arauekin ez dutelako bat egiten. IV. Plan honetan heterosexuala ez den sexu-joera eta -identitatea duten pertsonen bizitza eta eskubideak defendatzeko ere lan egingo dugu.

**Berdintasunerako IV. Planaren diseinuaren helburua Mungiari tresna berezi bat ematea da, hain zuzen ere hurrengo urteetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko urratsak sortzeko. Beraz, berdintasunaren inguruko erronkak eta helburuak ezarri dira datozen urteetarako, eta horretarako egin beharreko ekintzak ere definitu dira. Hain zuzen ere, horiek jaso dira dokumentu honetan.**

## Lan-prozesua eta erabilitako metodologia

**B**erdintasunerako IV. Plana egiteko prozesu parte-hartzaileak urte biko lana ekarri du. 2018ko otsailean hasi ginen, barne-lan batean abiatuta, Talde Eragilea sortuz. Talde horrek egitura osoa eraikitzeko oinarri eta printzipio gidariak ezarri zituen. Talde Eragileari birritan gehitu zitzaion Udalaren komunikazio-zerbitzua, informazio- eta komunikazio-estrategia ezartzeko, eta, hala, lan-prozesu hori guztia ezagutzera emateko, bai tokiko administrazioaren barruan, bai herritarrei. Urte hauetako lan gogorren koordinatzaile izan da Talde Eragilea.

Lehenengo lan garrantzitsu gisa, Berdintasunerako III. Planarekin zerikusia zuen guztia ebaluatu genuen. Izan ere, lanean hasi ginenean, Plan hori indarrean baitzegoen. Hirugarren plana 2013an onartu zen, eta, beraz, azken 5 urteetan berdintasunaren arloan udalerrian egindako proiektu, jarduera, ekimen, kanpaina eta abarren ebaluazioa egin zen. Horrekin batera, inkesta bat egin zen, eta on line bidali zitzairen udaleko langile guztiei (118 langileek hartu zuten parte: 58 emakume eta 60 gizon, hau

da %70ak), III. Planari eta IV. Planerako proposamenei buruz zuten iritzia eta ebaluazioa ezagutzeko. Horrekin batera, beste galdetegi bat bidali zitzaien udal alorretako arduradunei, azken urteotan sail bakoitzean genero zeharkakotasunak izan duen aplikazio mailaren berri izateko.

Hortik aurrera, errealitatearen diagnostiko-prozesuarekin hasi ginen, eta, horretarako, bigarren mailako informazio-iturrietara jo genuen, informazio kuantitatiboa biltzeko asmoarekin, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak aurkitzeko zeinbat alorretan: demografian, hezkuntzan, kulturaren, gizarte-zerbitzuetan, kirolean, hirigintzan, garraioan, enpleguan, osasunean... Horrez gain, online galdeketa bat prestatu genuen, herritarrek diagnostiko-fase horretan parte har zezaten. Inkestari 90 pertsonak erantzun zioten (71 andre eta 16 gizon).

Prozesuan zehar, 10 elkarrizketa sakon egin zitzaizkien udaleko langileei, tokiko administraziorako lan egiten duten langileei eta Mungiako jendeari, batetik, udalaren eta udalerraren egoerari buruzko informazioa biltzeko, eta, bestetik, administrazioak eta udalerrak etorkizunean izan behar dutenari buruz zuten iritzia jasotzeko, berdintasunaren ikuspegitik.

Ebaluazio- eta diagnostiko-prozesua amaituta, tailerrak jarri ziren martxan bildutako informazio hori guztia kontrastatzeko. Hala, bilera egin zen politikariek, 2018an, eta beste bi udaleko teknikariek eta bat herritarrek, 2019an. Hortik abiatuta, ebaluazio- eta diagnostiko-txostena osatu zen (informazio kuantitatibo eta kualitatiboarekin), eta udalerrak horrek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez dituen indarguneak eta ahulguneak identifikatu ziran. Dokumentu honen laburpena "diagnostikoaren ondorio orokorrak" atalean ikus daiteke.

Udalaren barruan, "Hobekuntza-Batzordea" izeneko egitura dugu, eta bertan biltzen dira udal-arlo guztietako teknikari arduradunak. 2019an hasi ginen, egitura horri ebaluazioaren eta diagnostikoaren ondorioen berri emanez, prozesuaren zati izan baitziren. Hurrengo Berdintasunerako Planean genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna lortzeko, helburu horiek finkatu eta eman beharreko urratsak adostu ziren. Helburu horiek taldean egiaztatu eta adostu ziren, gerora arlo bakoitzak izango baitu udalean berdintasun printzipioak ezartzeko ardura. Horretarako, Berdintasunerako Zerbitzuaren laguntza izango dute.

Hurrengo urratsa Udaleko sailekin, Behargintzarekin eta Gizarte Zerbitzuekin elkarrizketak egitea izan zen, eguneroko lanean genero-ikuspegia nola txertatzen den, horretarako beharra ikusten duten eta hobetzeko arloak nola identifika daitezkeen ebaluatzeko. Guztira 14 emakume eta 8 gizon elkarrizketatu ziren.

Hortik aurrera, Mungiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren lehen zirriborroa egiten hasi ginen. Zirriborroa udal politikako ordezkari guztiei bidali zaie, ekarpenak egin ditzaten.

Etorkizuneko planari informazio kualitatiboa eman diezaioketen herritarrak identifikatu ditugu, baita parte hartzeko interesa duten eragile eta sektoreak ere, eta kontraste- eta ekarpen-tailer batera gonbidatu ditugu. Gainera, dei irekia egiten zaie parte hartu nahi duten guztiei, eta komunikazio-bideak dibertsifikatu dira ahalik eta biztanleria-espekto zabalenera iristeko. Ikastetxeek, kirolaren, kulturaren, musikaren, gizarte-dinamiken, hainbat udal-zerbitzuren erabiltzaile diren pertsonak, adinekoak, jai-batzordeak, elkarteak... parte hartzen dute tailerrean, udal-elkarteetako emakumeekin eta ebaluazio- eta diagnostiko-prozesuko dinamiketan parte hartu zuten guztiekin batera. Jatorri, adin eta eremu askotako 24 emakumek eta 6 gizonak osatu dute taldea.

Ekarpen horiekin osatzen dugu dokumentua. Udaleko, Gizarte-Zerbitzuetako eta Behargintzako langileei eman zaie azken aldiz, proposamenak egin ditzaten, eta talde eragilearen azken ekarpenekin osatu da.

Behin betiko testu hau Osoko Bilkurara eraman da, Udalbatzak onetsi dezan. 2020. urtea Covid19ekin konplexua eta berezia izateak ekaineko osoko bilkurara arte atzeratu du horren onarpena. Orduan, dokumentua berretsi egin da udal-gobernua osatzen duten alderdi politiko guztien aldeko botoarekin.

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa erakitzeko ahaleginean konprometitutako pertsona guztiei. Bide hori tresna erabilgarria, xumea eta ezinbestekoa izango delakoan gaude.





# MUNGIAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA

**M**ungiako Berdintasunerako IV. Planak, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana du ardatz. Planak 4 ardatza ditu eta jarraian, esku-hartze bakoitzaren inguruan EAEko VII. planak jasotzen duena azaltzen dugu:

## 1. Ardatza GOBERNU ONA

Udalan emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa txertatu, legitimatu eta bultzatzean datza, berdintasunarekiko benetako konpromisoa adieraziz.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4. artikuluan jasotzen den moduan, genero-ikuspegia edo genero mainstreamina progresiboki txertatzea esku-hartze publiko bidezkoago, gardenago eta zuzenagoa bermatzeko formula nagusietako bat da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.
- Gobernu onaz hitz egitea demokrazia parte-hartzaileaz, giza eskubideez eta justizia sozialaz hitz egitea da.
- Berdintasunean oinarritutako eredu batera igarotzean datza, eraginkortasuna, gardentasuna, kontuak ematea eta gizarte zibilaren parte-hartzea baliatuz.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso politikoa izateko, beharrezkoa da hainbat neurri hartzea, zeinak bermatuko duten betebeharrak beteko direla, eta aukerak sortuko direla generoaren alderdia estrategia politiko eta programa guztietan txertatzeko, eta indar berezia jarriko dela emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko araudia sortzeko, aurrekontu-baliabideak handitzeko eta egiturak eta pertsonak prestatzeko.

Ardatz honetako erronkak, helburuak eta ekintzak:

## A) UDAL-POLITIKETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

### 1. BERDINTASUNERAKO PLANAREKIKO INPLIKAZIOA AREAGOTZEA

#### 1.1. Udal-langileek eta ordezkari politikoek Berdintasunerako Planari jarraipena eta horren kudeaketa egitea

- Berdintasunerako Egitura Iraunkorrean, BElen, kudeaketa planak landu eta urteko ebaluazioak aurkeztu, zein trebakuntza jaso.
- Hobekuntza-Batzordean urte hasieran.
- Langileen parte hartze gunea.

## **1.2. Herritarrei berdintasunerako politiketan inplikatzeko eta euren parte-hartzea areagotzeko baliabideak eskaintzea**

- Arlo bakoitzeko arduradunak bere gain hartu dezala emakumeen parte hartzea neurtzea.
- On-line bidezko kanalak.

## **1.3. Berdintasunerako Sailaren baliabideak egokitu**

- Urtero-urtero aurrekontua beharretara egokitu.
- Udalaz gaindiko egituretan parte hartzen jartzea (EUDEL eta Aldundia).

## **2. GENERO-IKUSPEGIA UDAL-POLITIKA GUZTIETAN TXERTATZEN JARRAITZEA**

### **2.1. Udal-politiken erdigunean genero-ikuspegia egokitzea**

- Gida egin eta zabaldu.
- Baliabide Sailak kontuan hartzea langile berrien trebakuntza gai hauetan.

### **2.2. Udalak berdintasunarekiko duen konpromisoa ikustaraztea**

- Adierazpen Publikoak.
- Ordezkarri politikoei zuzendutako trebakuntza.
- Ordezkarri politiko eta langile berrientzako harrera-protokoloa lantzea eta berdintasunarekin lotutako edukiak txertatzea.

## **3. BERDINTASUNAREN ALDEKO ARAUDIAK LANTZEA**

### **3.1. Berdintasunerako araudiak lantzea**

- Barne-araudia sortzea genero-ikuspegia txertatzeko irizpideekin.

### **3.2. Udal-araudiak onartu aurretik, generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioa egiten jarraitu**

- Trebakuntza araudiak sortzen dituzten Sailletako teknikarientzat.

## **4. DATU-BILKETA ETA AZTERLANAK GENERO-IKUSPEGIAREKIN EGITEN JARRAITZEA**

### **4.1. Udalaren datu-bilketan sexuaren aldagaia txertatzen jarraitzea**

- Sexu aldagaia txertatu.

### **4.2. Udalean egiten diren azterketetan emakumeen eta gizonen egoerak berariaz aztertzea**

- Azterketetan emakumeen eta gizonen egoerak berariaz aztertzea.

### **4.3. Udalaren datu-bilketa eta azterlanetan, sexuaz gain, beste aldagai batzuk kontuan hartzea: adina, jatorria, aniztasun funtzionala, sexu-genero identitatea (azken hau, pertinentea den eskarrietan, beti ere programaren bat landuko bada)**

- Aldagaiak txertatzea.

## 5. KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTA ETA BARNERATZAILEAREN ERABILERA SISTEMATIZATZEA

**5.1. Udalak sortzen dituen euskarri guztietan, eta bereziki barneko dokumentazioan, komunikazioa modu ez-sexistan eta barneratzailean egitea**

- Komunikazio barneratzailea bermatzeko agindua barne araudian txertatu.

**5.2. Udal-ordezkarien jardunean, ahozko zein idatzizko komunikazioari dagokionez, emakumeak ikustaraztea eta berdintasunaren aldekoak diren mezuak hedatzea**

- Berdintasunaren aldeko mezuak zabaltzea.

## 6. BERDINTASUNAREN ALDEKO AURREKONTUAK LANTZEA

**6.1. Udalak onartzen dituen aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko urratsak ematen jarraitzea**

- Prozedura zehaztea.
- Aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan duten eragina aztertzea kanpo aholkularitza batekin.
- Aurrekontu parte hartzaileetan genero-ikuspegia txertatzea.



## **6.2. Saitetako aurrekontuaren ze % izango du inpaktu zuzen edo zeharkakoa emakume eta gizonen berdintasunean neurtzeko tresna sortu eta aplikatu**

- Tresna sortu eta aplikatu.

## **7. BERDINTASUNAREN ALDEKO KONTRATAZIO ETA HITZARMENAK EGITEN JARRAITZEA**

### **7.1. Udalak egiten dituen kontratazio eta hitzarmenetan, genero-ikuspegia kontuan hartzea**

- Klausula Tipoak egokitzea Berdintasun Legeak hala eskatzen badu.

### **7.2. Udalak kudeatzen dituen diru-laguntzetan (balorazio-irizpide edota betebeharrak gisa) genero-ikuspegia kontuan hartzea**

- Berdintasun Legearen moldaketak kontuan hartu beharko dira.

## **8. UDAL-ORGANOETAN PAREKIDETASUNA BERMATZEKO NEURRIAK MARTXAN JARTZEA**

### **8.1. Udalak egiten dituen kanpo-agerraldietan parekidetasuna bermatzea ahal den neurrian**

- Parekidetasuna bermatzea ahal den neurrian.

### **8.2. Udal-organo eta parte hartzeko gune guztien araudietan, osaera parekidea bermatzea**

- Araudia egokitzea parekidetasuna (60/40) bermatzeko.

### **8.3. Udalak bultzatutako lehiaketa edo/eta sari-banaketarako epaimahaien osaera parekidea bermatzea**

- Araudia sortzea parekidetasuna (60/40) bermatzeko.

## **B) UDAL-LANGILEEN KUDEAKETAN BERDINTASUNA TXERTATZEA**

## **9. BERDINTASUNEAN OINARRITUKO DIREN UDAL-LANGILEEN KONTRATAZIO ETA PROMOZIOAK EGITEA**

### **9.1. Udal-langileen kontratazioak eta promozioak berdintasunean oinarritzeko neurriak martxan jartzen jarraitzea**

- Udal-enplegetarako hautapen-prozesuetako gai-zerrendetan, berdintasunari buruzko edukiak sartzea.
- Segregazio horizontala ematen den lanbideetan ordezkari azterketak eta beharrezkoa bada ekimenak garatzea.

## **10. BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA ESKAINTZEN JARRAITZEA**

### **10.1. Udal-langileak eta ordezkari politikoak genero-berdintasunean trebatzea genero-ikuspegiaren jardueran txertatu dezaten**

- Trebakuntza planean berdintasun gaiak txertatu langileek jaso dezaten.
- Berdintasunerako Egitura Iraunkorrean, BElan, urtean behin gai orokor bat .

## 11. UDALEAN BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA ERRAZTEA

### 11.1. Udal-langileei lana eta bizitza pertsonala uztartzen laguntzen jarraitu

- Baliabide Orokorren sailarekin bateragarritasun neurrien asebetetze-maila neurtzeko azterketa egitea.

### 11.2. Gizonen artean erantzunkidetasuna sustatzeko sentsibilizazioa landu

- Maskulinitate eredu hegemonikoaren ondorioen inguruko tailerra.

## 12. LANERAKO GIRO EROSO ETA SEGURUA BERMATZEA

### 12.1. Udal barruan sexu-jazarpenera eta sexuagatiko jazarpenera prebenitzeko protokoloa lantzea

- Protokoloa sortu eta beharrezkoak diren egiturak sortu.

### 12.2. Herritarrentzako Arreta zerbitzua eskaintzen duten langileentzako indarkeria kasuak kudeatzeko trebakuntza eskaini

- Trebakuntza eskaini.

## 2. Ardatza EMAKUMEEN ALDUNTZEA

Berdintasunerako bidean elementu giltzarri gisa, emakume eta nesken ahalduentze pertsonala, soziala, kolektiboa eta politikoa babestu eta bultzatzean datza.


- NBE Emakumeak erakundearen arabera, ahalduentzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde munduan egin behar den eraldaketa sozialerako.
- Emakumeen Nazioarteko IV. Biltzarrean erabaki bezala, emakumeen ahalduentzerik gabe ez dago berdintasunik (Beijing-eko Adierazpena -1995-, 13. artikulua).
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planen ahalduentzea jarduera-ardatz zehatz bat ez ezik plangintza osoa gidatzen duen printzipio bat ere bada.
- Emakumeen ahalduentzea bultzatzea lehentasunezko ardatza izan da politika publikoetan, gizar-teak demokratizatze prozesuen parte bezala.
- Bi ardatzen baitan jardun behar da: alde batetik, emakumeen eta emakume-mugimenduen ahalduentze indibidual, kolektibo, sozial eta politikorako prozesuak babesten, eta, bestetik, prozesu horiek ikusgarri eta iraunkor egiten.

Ardatz honetako erronkak, helburuak eta ekintzak:

## 13. EMAKUMEEN AUTONOMIA ETA BOTERETZEA SUSTATZEA

### 13.1. Emakumeen ahalduentze pertsonala nahiz kolektiboa indartzeko Ahalduentze Eskola sortu eta programazioa ekoiztea

- Ahalduentze Eskola sortu eta programazioa sendotu (interseksionalitateari erreparatuz).



### **13.2. Emakumeen autonomia sozioekonomikoa bultzatzeko ekimenak martxan jartzea Behargintzarekin elkarlanean, bereziki**

- Behargintzak programa berezitua martxan jartzea.

## **14. EMAKUMEEN PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA BERMATZEA**

### **14.1. Udalak herriko emakumeekin, emakume-taldeekin eta mugimendu feministarekin batera sareak eta elkarlana sustatzea**

- Bilera ireki bat Plana aurkezteko eta jarraipena emateko aukera aztertu.

### **14.2. Emakumeen ordezkartza eta partaidetza areagotzea genero-arrakala dagoen eremuetan**

- Arrakala murrizteko neurriak hartu kasuan kasu.

#### **14.2.1. Kirol jardueretan**

- Emakumeen parte-hartzea sustatzea Kirol Sailarekin batera.

### 14.2.2. GazteGunean

- Emakumeen parte-hartzea areagotzeko esku-hartzea eta programazioa planifikatzea.

## 15. EMAKUMEEI IKUSGAITASUNA ETA AITORTZA EMATEA

### 15.1 Emakumeen aitortza lantzea, arlo ezberdinetan egindako ekarpenak ikusaraziz: "Andrazkoen Historia begi barriz irakurteko Ikerketa-Beka"

- Proiektua aurkeztea eta deialdi berria egin.

## 3. Ardatza GIZARTE-ANTOLAKETA BERTINZALEA

Herriko eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzeko, guztion eskubideak bermatzeko eta eredu sozial iraunkor eta berdinzaleago bat lortzeko.

- Politika publikoak, genero-justiziara bideratuta badaude, tresna eraginkorra izan daitezke laneko sexu-banaketa apurtzeko eta eraldaketa soziala eta ekonomikoa bultzatzeko. Beste gizarte-eredu bat bermatzeko: berdintasuna erdigunean duen gizartea.
- VII. Planean, zainketa-lanak dira zainketa-beharrei erantzuteko egiten ditugun jarduerak, eta ez bakarrik familiaren esparruan ordaindu gabeko etxeko lan deitu ohi ditugunak. Zainketa-lanak izan daitezke diruz ordaindutakoak edo ez.
- Ordainduta egon edo ez, gizakion zaintza-premia oinarrizkoak betetzearen lana emakumeengan uzten da oro har, naturaltasunez.
- Berdintasuna gizartea eta ekonomia aldatzeko balioa dela onartzean datza. Balio horren ezarpena, hezkidetzaren eredu barneratzaile baten bidez eta prozesu horretan instituzioak, erakundea eta gizarte osoa erantzunkide izanez lortuko da.
- Emakumeentzako autonomia ekonomikoa sustatzeko, kalitatezko enpleguak eta pobrezia-ereminizazioan eragin behar da.
- Zaintzen ikusgarritasunean eta balioan sakontzeko, erantzunkidetasunerako bideak sustatu behar dira.

Ardatz honetako erronkak, helburuak eta ekintzak:

## 16. BERTINTASUNA BALIO SOZIALTZAT AITORTU ETA HERRITARRAK NAHIZ HERRIKO ERAGILEAK BERTINTASUNAREN INGURUAN SENTSIBILIZATZEA

### 16.1. Data esanguratsuetan herritarrak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzen jarraitzea (martxoak 8, martxoak 31, ekainak 28, azaroak 25...)

- Martxoak 8, martxoak 31, ekainak 28, azaroak 25... ospatzen jarraitu.

### 16.2. Gizonak berdintasun gaietara hurbiltzea

- Berdintasunaren aldeko gizonen sarea, konpromiso-sinadura. Aktibo bat izateko herrian.

## 17. HEZKUNTZAREN EREMUAN HEZKIDETZA LANTZEN JARRAITZEA

### 17.1. Hezkuntza formaleko eragileei baliabideak eskaintzea, euren ikastetxeetan hezkidetzaren lantzen jarraitzeko

- Gune bat eskaini ikasturte hasieran erronkak partekatzeko.

### 17.2. Hezkuntza ez-formaleko eragileekin elkarlana bultzatzea, euren jardunean genero-ikusegia txertatzeko

- Lonjen erabiltzaileekin azterketa egin.
- Aisialdi taldeetako begiraleei trebakuntza eskaintzea.

## 18. EMAKUMEEN AUTONOMIA PERTSONALA ETA EKONOMIKOA SUSTATZEA


### 18.1. Behargintzarekin elkarlanean emakumeen enplegua sustatzeko estrategikoak diren esku-hartze eremuak identifikatzea

- Azterketa egitea.

## 19. ZAINZAREN ERANTZUNKIDETASUNA ETA ETIKA BULTZATZEA

### 19.1. Zaintza-lanen garrantzia eta balioa ikusaraztea

- Zaintzailearen egunean ekimenak egiten jarraitzea.





## 19.2. Zaintza- eta etxeko-lanak erantzunkidetasunez banatzea sustatzea (gizonen artean)

- Maskulinitate eredu hegemonikoa lantzeko.

## 19.3. Pertsona zaintzaileen egoera hobetzen jarraitzea Jagoten programaren bidez

- Baliabide eta tresna pertsonalak lantzen jarraitzea.

## 4. Ardatz INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA

Indarkeria matxistari dagokionez, prebentzioak arreta jartzea, eta baita jada indarkeria jasan dutenenganako erreparazioan ere, bigarren biktimizazioak eragitea ekidinez.

- Emakumeak eta neskatilak indarkeriarik gabe bizi daitezen, aldatu egin behar dira emakumeen eta feminotasunaren gutxiagotasunari eusten dioten aurreiritziak, ikusmoldeak eta ohiturak. Indarkeria sistemikoa baita.
- Erakunde publikoetan prebentzioaren eta sentsibilizazioaren arloan egindako lanaren ondorioz eta mugimendu feministek eta emakumeen mugimenduek egindako salaketaren ondorioz, emakumeen aurkako indarkeriarekiko gaitzespena gero eta handiagoa da herritarren artean.
- EAEko VII. Planaren ondorioetarako, hauek dira emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpenak: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, emakumeen eta neskatilen aurkako sexu-indarkeria —barne direla sexu-abusua, sexu-erasoa eta sexu-jazarpena, edozein eremutan—, emakume eta neskatilen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, feminizidioa, adin goiztiarreko ezkontza, ezkontza hitzartua edo behartua, bai eta beste edozein indarkeria modu ere, emakumeen osotasuna edo askatasuna urratzen duena eta EA Erentzat erreferentzia den araudian aurreikusita dagoena.

Ardatz honetako erronkak, helburuak eta ekintzak:

## 20. INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN, UDALAK JARRERA ERAGILEA IZATEA

### 20.1. Adierazpen publikoak kasuaren arabera egokituz

- Lanketa egiten jarraitzea.

### 20.2. Genero indarkeriaren biktimak artatzeko tokiko koordinazio protokoloa eguneratzea

- Barne-dokumentua osatu eta zabaldu.

## 21. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA LORTZEKO SENTSIBILIZAZIOA LANTZEA

### 21.1. Diskurtsoa gidatuko duten terminoen argipenerako gida eguneratzea

- 20.1 helburuarekin batera.

### 21.2. Berariaz gazteekin indarkeria matxista prebenitzeko lanketak egiten jarraitzea

- Neskekin autodefentsa eta mutilekin maskulinitate tailerrak ikastetxeetan.
- Beldur barik programa.

### 21.3. Emakumeei zuzendutako autodefentsa tailerrak egiten jarraitzea

- Urtean bi ikastaro planifikatzea.

## 22. INDARKERIA MATXISTA JASAN DUTEN EMAKUMEEN HAUTEMATEA, EMATEN ZAIEN ARRETA HOBETZEA ETA BERRONERATZEKO JARDUERAK SUSTATZEA

### 22.1. Trebakuntza bermatzea, kasuen hautematean lagundu dezaketen agenteei


- Gizarte Zerbitzuak, Gazteria... trebakuntza eskaintzea.

### 22.2. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzea eta haien ahalduntze-prozesuetan laguntzea

- Psikologia eta juridikoa zerbitzuak.
- Gizarte langileen arreta hobetzeko trebakuntza.
- Pisua baliabide gisa erabiltzea.
- Tailerra eskaintzea genero indarkeria jasan duten emakumeentzat.
- "Tartekari Sarea" sustatzen jarraitzea.

### 22.3. Indarkeria jasan duten emakumeak eta hauen seme-alabak berroneratzeko ekimenak abiatzea

- "Hausnarketa Gunea" espazioa.
- Andina Pereira de Brito mungiararren urteurreneko ekimena ospatu.
- Mugarik Gaberekin "Memoria Eraikiz" proiektua elkarlanean.



# DIAGNOSTIKOAREN ONDORIO OROKORRAK

**P**lan hau osotzeko, gure egoeraren azterketa kuantitatibo eta kualitativoa egin da. Ateratako ondorio nagusi batzuk aurkeztuko ditugu atal honetan. Ondorioek laburbildu egiten dute Mungian emakumeen eta gizonen berdintasunaren egoera nolakoa den, indargune eta hobetzeko alderdiak zehaztuta.

## 1. Udal-administrazioa

| INDARGUNEAK   | HOBETZEKOAK/PROPOSAMENAK   |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Enplegu publikorako deialdietan eta hautaketa prozesuetan aukera berdintasuna zaindu eta bermatu egin da.</li><li>• Gizarte Kontseiluaren osaeraren oinarrietan jasota dago partaideen kopurua parekidea izan behar duela.</li><li>• Tradizioz administrazioan garrantzia handia izan duten lanpostu askotan gure udalean rol-aldaketa egon da. Adibide gisa eta batzuk aipatzearren, Arlo Ekonomiko eta Baliabide Orokorretako sailtan ardurak nagusiki gizonen eskuetan izatetik, azken urteotan emakumezkoenetara pasatu dira.</li><li>• Arlo ezberdinetako Udaleko langile batzuek berdintasunarekin lotutako trebakuntza jaso dute. Berdintasun zerbitzuak eta IVAPEk antolatutako ikastaroek lagundu egin dute helburu horretan.</li><li>• Udaleko langileek interesa azaldu dute, Berdintasunerako IV. Plana lantzeko martxan jarritako prozesuarekin. Planean jasotako helburuak eta neurriak zehazterakoan udal langileen parte-hartzea handia izan da inkestan (%70ek erantzun du).</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Berdintasun teknikariarekin komunikaziorako bideen balorazioa egin.</li><li>• Udaleko Informazio-batzordeetan emakume eta gizonen parte hartze orekatuagoa lortu.</li><li>• Udal-ordezkarien sentsibilizazio eta trebakuntza lanarekin jarraitu.</li><li>• Udalean segregazio horizontala apurka-apurka gaitzen joan.</li><li>• Udaleko langileen lan-baldintzak genero-ikuspegitik landu.</li><li>• IV. Planaren edukiak hobeto ezagutzera eman, Udal barruan zein kanpoan.</li><li>• Udaleko langileek berdintasunarekin lotutako sentsibilizazio eta trebakuntza jarraituagoa jasotzea.</li><li>• Udal araudiak generoaren ikuspuntutik landu.</li><li>• Sail guztietan genero-ikuspegia txertatzeko eta komunikazio berneratzailea egiteko gidak landu.</li><li>• Jazarpen sexistari aurre egiteko barne-mailako protokoloa landu.</li><li>• Planari lotutako adierazle-sistema landu.</li><li>• Udal datu-base guztietan sexu-aldagaia txertatu.</li><li>• Planaren zeharkakotasuna bermatzeko, sailen arteko koordinaziorako guneari jarraipena eman.</li><li>• Langileen bateragarritasuna aztertu.</li></ul> |

## 2. Berdintasuna

| INDARGUNEAK  | HOBETZEKOAK/PROPOSAMENAK   |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako hiru Plan landu ditu Udalak dagoe-neko.</li> <li>• Alderdi guztien adostasunarekin, eta gehienetan aho-batez, berdintasunaren aldeko konpromiso politikoak behin eta berriro adierazi ditu Udalak, egun esan-guratsuetan.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• IV. Planaren jarraipena bermatuko duen egitura baten sorrera baloratzea, Udalaren eta emakume-elkarteen eta elkarte femi-nisten topagune izango dena.</li> <li>• Kolektibo jakin batzuetara iristeko, trebakuntza-eskaintza egin behar zaie euren guneeetan.</li> <li>• Bateragarritasun eta erantzukidetasunaren gaia lantzeko, ko-menigarria litzateke ekintza berriak martxan jartzea aztertzea. Batez ere gizonen zuzenduta.</li> <li>• Gizonak berdintasun-gaietara hurbiltzeko, erakartzeko, lan egin beharko luke Udalak.</li> </ul> |

## 3. Enplegua

| INDARGUNEAK   | HOBETZEKOAK/PROPOSAMENAK   |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Behargintza erreferentziazko erakundea da zer-bitzu horretako erabiltzaileentzat.</li> <li>• Mungialdeko Behargintzak eta Mungiako Udalak eskualdeko enplegu planari lotutako urteko kontratazioen programa jarri dute martxan. Emakume eta gizonen arteko desberdintasunak kontuan hartzen dira langabetuak kontratatzerakoan.</li> <li>• Udal Gaztediren programaren esparruan, kultura ekintzailea Mungiako prestakuntza-zentroetako (DBH, LH eta FPB) gazteen artean zabaltzeko jarduerak egiten dira, generoaren ikuspegitik.</li> <li>• Mungialdeko Behargintzak, eragile bideratzailea den aldetik, Mungialdeko Enplegu Mahaia dinamizatu eta koordinatzen du.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mungiako emakumeen aktibitate-tasa eta okupazio-tasa gizonena baino txikiagoa da. Langabezia-tasa, berriz, gizonena baino 4 puntu handiagoa. Errealitate hori hobetzeko eragileen arteko koordinazioa hobetzea komeniko litzateke.</li> <li>• Sentsibilizazio-kanpainak egin zaintza eta etxeko lanak emakumeen esku geratzen dirala ikustarazteko.</li> <li>• Oraindik ere enplegua oso segregatua dago eta errealitate hori aldatzeko, hezkuntzatik eragin beharra dago.</li> <li>• Emakume guztien eta bereziki emakume migratuen enplegua sustatzeko, programa berezituak martxan jarri.</li> </ul> |

## 4. Gizarte Politika

| INDARGUNEAK   | HOBETZEKOAK/PROPOSAMENAK   |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarkeria kasuak artatzeko protokoloak landu ditu Udalak.</li> <li>• Indarkeria kasuetan arreata-sistemaren atalekiko koordinazioa oso ona da.</li> <li>• Gizarte langileen dedikazioa indarkeria egoerak jasan dituzten emakumeei laguntzeko, lan-ordutegitik kanpo ere bai.</li> <li>• Etxebizitza bat bideratu izana, indarkeria larrialdi egoerarako.</li> <li>• Berdintasun teknikariak Gizarte langileekin izandako harreman estua. Hilean behin elkartzen dira eta kasu berrien informazioa trukatzeko dute aldizka.</li> <li>• "Jagoten programa", mendekotasuna duten pertsonen eta zainzaileei zuzendua, indargunea da bere baitan.</li> <li>• Zerbitzu juridiko eta psikologikoa.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Beharrezkoa da datu-baseak eta estatistikak generoaren ikuspuntutik maiztasun jakin batekin eguneratzea eta lantzea Gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileak zeintzuk diren eta zer behar dauzkaten aztertu ahal izateko.</li> <li>• Migratutako pertsonen lan handiagoa eta sakonagoa egiteko beharra ikusten da.</li> </ul> |

## 5. Hezkuntza eta Gazteria

| INDARGUNEAK  | HOBETZEKOAK/PROPOSAMENAK   |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza formalean berdintasuna sustatzeko lan handia egin da.</li> <li>• "Beldur barik" proiektua lantzen da ikastetxeetako ikasleekin.</li> <li>• Mungiako ikasleei sexualitate-tailerrak ere eskaintzen zaizkie.</li> <li>• Gaztegunean genero-ikuspegitik lan egiten da.</li> <li>• Lonjetan, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku hartzeko zerbitzu bat dago, berdintasun-edukiak lantzen dituena.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza formalean, ikastetxeetako irakasleak genero-gaietan eta hezkidetzan trebatzen jarraitzeko beharra ikusten da.</li> <li>• Ikastetxeetako guraso-elkarteetan gizonen parte-hartzea sustatzeko urratsak ematea interesgarria litzateke.</li> <li>• Hezkuntza-ez formalean lan handia dago egiteko, hezitzaile eta begiraleekin.</li> <li>• Musika eskolan lanketa berezia egitea komenigarria litzateke, musika-tresnen aukeraketan dauden desorekak gainditzeko.</li> <li>• Gazteekin berdintasuna lantzeko, beharrezkoa da gazteen guneak zabaltzen jarraitzea.</li> </ul> |

## 6. Euskara

| INDARGUNEAK   | HOBETZEKOAK/PROPOSAMENAK   |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeek joera handiagoa dute gizonen baino euskara ikasteko, euskaraz hitz egiteko eta euskararekin lotutako ekintzetan parte hartzeko.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararekin lotuta antolatzen diren ekimenetan gizonen parte-hartzea sustatzeko bideak jorratu beharko lirateke, izan ere, emakumeak dira batez ere ekintza horietan parte hartzen dutenak.</li> </ul> |

## 7. Kultura eta jaiak

| INDARGUNEAK   | HOBETZEKOAK/PROPOSAMENAK   |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mungiak kultur-eremuko elkarte-sare aberatsa dauka eta emakumeen parte-hartzea handia da sare horretan.</li> <li>• Kultur-arloan antolatzen diren ikastaroetan emakume askok parte hartzen du. Liburutegiko erabiltzaileen artean ere emakumeak gizonak baino gehiago dira.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kultur-eremuko elkarten datuak eguneratuak egotea, genero-azterketa egiteko.</li> <li>• Udalak, batez bere ume eta gazteekin lan egiten duten enpresak kontratatzen dituen kasuetarako, genero-irizpideen zehaztapena egin beharko litzateke.</li> <li>• Kultur-eremuan gizonen parte-hartzea sustatzeko ekimenak martxan jarri.</li> <li>• Jaien programazioa eta antolaketa genero-ikuspegia kontuan hartuta lantzen jarraitzea.</li> <li>• Mungiako gazteen musika-taldeetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekimenak martxan jarri.</li> <li>• Elkarteetako hezitzaileak eta begiraleak berdintasun-gaietan trebatu.</li> <li>• Emakumeek kultur-arloan egin duten eta egiten duten ekarpena ikustarazteko ekintzak martxan ipintzen jarraitzea komenigarria litzateke.</li> </ul> |

## 8. Kirola

| INDARGUNEAK  | HOBETZEKOAK/PROPOSAMENAK  |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Kiroldegian eskaintzen diren gidatu-tako kirol-ikastaroetan emakumeen parte-hartzea handia da.</li><li>• Emakumeen artean kirola sustatzeko neurriak hartu dira azken urteetan</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Kirol-eremuan aritzen diren elkarten sarearen inguruko datu eguneratuak izatea komenigarria litzateke, genero-azterketak egin ahal izateko.</li><li>• Kirol-eremuan gertatzen diren jarrera matxistei aurre egiteko ekimenak martxan jarri beharko lirateke.</li><li>• Kirol-elkarteetako zuzendaritzetan emakumeek parte hartze orekatua izan dezaten neurriak hartu beharko lirateke.</li><li>• Kirol-taldeetako begiraleentzako formakuntza ezinbestekoa ikusten da.</li></ul> |

## 9. Hirigintza

| INDARGUNEAK   | HOBETZEKOAK/PROPOSAMENAK   |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Mungiako Udalak 2009an Hiri debekatuaren mapa landu zuen parte hartzeko prozesu baten bidez.</li><li>• Sortutako proposamenak kontutan hartu ziren.</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Hirigintza ordenantzen berrikuspena genero-ikuspegiarekin landu beharko litzateke.</li><li>• Hiri-antolamenduan emakumeen ikusgarritasun sinbolikoa sustatzeko ahalegina egitea interesgarria litzateke.</li><li>• Hirigintza arlotik bideratzen diren azterlan eta proiektuetan genero-ikuspegia txertatzea gomen-dagarria litzateke.</li></ul> |